

LAGUNDU NIRI!

Idaz-lan onetan abadetzarako eleiz-deiari buruz mintzatuko naz.

Gauza argia da bokaziñoak urri dagozela gure giro onetan.

Jaungoikoaren gauzea ete da ori? Baiña itzi daigun arazo ori alde batera gaurkoz, eta aurrean daukagun arazoa bideratu dagigun.

Noizean bein ikusten doguz deituak izan leitekezan umeak edo gaztetxuak. Zelan jakin nor dagon egoera orretan?

Geienetan ezaugarri bi agertuko dira: Sendi egokia eta katekesi bizi-emoillea.

Olako egoeran dagon ume edo gaztetxu batek aulako zerbait esaten dausku isillean: Lagundu niri!

Eta dei orregaz bat egin bear dau laguntzailearen erantzun isillak: Emen naukazu laguntzaille!

Une onetan asi eta ikusten ez dan isilleko kordel batek lotzen dauz lagundua ta laguntzaillea.

Kordel ori nasai itzi bear da beti! Noizean bein tirakada txiki bat egin al izango da, baiña lagunduaren askatasuna beti aintzat artzen dala.

Lenengo unea une oargarria da baiña laster etorriko dira beste une oargarriago batzuk.

Bat lagunduak etorkizuna lenengo aztertzen dauanean izango da, geienetan bera be konturatu barik:Barruko

jokabidea sortuko jako, baiña kordelaren tirakadea osoan alboratu bagerik.

Une onetan laguntzailleak zurtasun aundiagaz jokatu bearko dau, ezertan be lagundua beartu bagerik.

Urteak aurrera lagunduari aukerea egiteko ordua etorriko jako. Kontuz laguntzaille! Ez beartu! Kordelari tirakadaxua egin, baiña kontuz!.

Eleiz-bidea bagerik beste bide bat artzen daua?Aske itzi! Ez dozu denporea galdu. Ikusi zure inguruan beste olakoren bat dagoan. Eta laguntza eten ba´da be ez galdu adiskidetasuna

Lagunduak baietza emoten ba´dau, aundia izango da laguntzailearen poza eta lan oneri oraindiño urteetan jarraitu bearko dautso.

Noiz arte? Gitxienez lagundua abadea izan arte. Eta geroago be bai bear ba´da! Zergaitik ez bizitza guztirako?

Laguntza onek geroago ta geiago artuko dau antxiñako gogo-zuzendaritzaren (dirección espiritual) antza.

Laguntza-lan onetan iru arisku agertzen dira beti: Lagundua mizkatu bat biurtzekoa, bere erabagiak berak eta sendo artzeko gai ez dala.

Bigarrena lagundua beti menperatuta eukitekoa, bere askatasuna ta erantzukizuna ondo alkaru barik.

Eta irugarrena laguntza ori lar sentikorra izatearena Arduraz ibilli beite laguntzaillea!

Olazar tar Martin´ek.

GABON ZORIONTSUAK



Gabon-jaiak urreratzen, gure irakurle guztiai eta euskaldun guztiai opa dautsegu zoriona.
Zoriona arrantzale ta itxaskariai, zoriona baserritar eta lantegietako langilleai.
Zoriona gaisoai ta ezinduai, zoriona espetxeratu ta erbestetuai.
Zoriona gabon-gaba etxean eta bakez igaroko dabenai, zoriona zergaitik edo agaitik urrun dabiltzanai.
Zoriona errigile ta politikariai, zoriona erritar zintzo ta baketsuai.
Zoriona gurasoai, zoriona seme-alaba ta aitita-amamai.
Zoriona Eleizako arduradunai, zoriona Barri ona gaurko arazoen argi lez jarri nai daben guztiai.
Zoriona erriaren alde burrukalaria diranai, zorina isiltasunean erri-lana jakintza-saillean egiten dabenai.
Aintza zeruetan Jaungoikoari eta bakea lurrean gogo oneko gizonai.

Euskerazaleak

URTE BARRI ONA!